

andramaxak • Ondarroa

KAIET BENGOTXEA ■ MARRAZKILARIA

«Kontzertu indartsua jarriko nuke nik jaietan»

Alazne Artetxe | ONDARROA

Komikigilea da Kaiet Bengoetxea ondarrutarra. Baina egun batzuetan, marrazkiak ahaztu eta festa izango du buruan. Izan ere, Kresalako danborradan ateratzen da, eta, partaide zuzen modura, Ondarroako andramaxak barru-barrutik bizi ditu. Bere lana eta herriko jaiak izan ditugu hizpide Kaiet Bengoetxearekin izandako elkarriketan.

■ Noiz eta nola hasi zinen komikigintzan?

Txikitatik marraztu izan dut. Beti gustatu izan zait. Gogoratu naiz lehen komikia hasi eta bukatu nuena Orreagako guda izan zela. Irakasleak aginduta, gutxi gorabehera 6 edo 7. mailan izan zen. Hortik hasi nintzen komikiak egiten. Ikastaroak egin ditut, Bilboko Anallanan ibili nintzen, eta Rober Garai komikigilearekin, Gernikan eta Basaurin egindako ikastarotan.

Bestalde, etxekoen laguntza beti eduki dut. Hasieran, akademia artistiko batean sartu ninduten, baina niri ez zitzaidan gustatu. Eta ulertu zuten niri komikia gustatzen zitzaidala, eta hortik aurrera ondo joan da dena.

■ Orain zertan zabilta lanean?

EGUNKARIAKO Xingola gehigarrian nabil lanean. Umeentzako denbora-pasak egin, *Zintzo-mintzo*-ko galderak marraztu eta komiki tira bat egiten dut. Batez ere, nire lana marraztea da. Aurten, gainera, Ondarroako Herri Ikastetxe Publikoan komiki ikastaroa eman diet, 5. mailako eta DBHko 3. eta 4.

mailako ikasleei. Oso esperientzia polita izan da. Datorren urtean ere jarraitzeko asmoa daukagu. Gehien harritu nuena 5. mailan mutilek baino neska gehiagok izena eman izana da. Normalean, niri alderantziz gertatu izan zait. Agian, baliteke adin batetik aurrera neskek uztea. Gazteak izan arren, asko balio duen jendea dago; onak dira.

■ Ondarroako Udalak argitaratutako *Geure Herria eta Geu* komikian parte hartu duzu. Bertako pertsonaia Kai da. Zer dela-eta Kai?

Gidoigileak pentsatu zuen pertsonaia kario bat izan behar zuela, eta Kai jarri zion izena. Ni neu ez nengoen oso konforme. Badakizu zenbat txorakeria entzun ditudan? [barrezka]. Orain ez naiz Kaiet Bengoetxea, Kai Bengoetxea baizik [barrezka]. Baina, tira, besteen adarjotzeak ondo hartzen ditut.

■ Ondarroako andramaxetan zer egiten duzu?

Jan, lo eta parrandan ibili. Normalean, Kresalako danborradarekin batera ateratzen naiz, 13tik 17ra. Jaietan gauz ibiltzen naiz batez ere, egunez ez hainbeste.

1997tik, danborradan urtero parte hartu izan dut. 1999an izan ezik, orduan lagun batzuekin European zehar ibili nintzelako eta ez nintzelako egon herriko jaietan.

■ Zein da Ondarroako jaietarik gehien gustatzen zaizun ekitaldia?

Niri gehien danborrada eta Arrantzale Eguna gustatzen zaizkit. Danborrada orokorrean gustatzen zait, danborrada bera. Nik neuk Kresalakoan



NEKANE AKARREGI

JAIK

«European zehar ibili nintzenean, danborrada eta Arrantzale Egunarekin gogoratu nintzen»

MUSIKA

«Jaietan kontzertu gehiago antolatu beharko liriteke, edo bat indartsua, behintzat»

parte hartzen dut. Arrantzale Eguna ere asko gustatzen zait, giro ezberdina egoten delako eta jendeak beste era batera bizi duelako. Gainera, egun guztiko jaia da. Kanpoan izan nintzen urtean, danborradarekin eta Arrantzale Egunarekin gogoratu nintzen batez ere.

■ Jaietan zerbaiten falta sumatzen al duzu Ondarroan?

Bai, nire ustez, kontzertu gehiago jarri behar liriteke, edo kontzertu bat indartsua, behintzat. Amallo, Bolibar, Anboto eta beste hainbat le-

kutan kontzertu onak egoten dira. Nire ustez, Ondarroa moduko herri batek eduki beharko luke kontzertu indartsua jaietan. OTAMek, lehen, kontzertua antolatzen zuen, eta horra beti joaten nintzen; talde onak ekartzen zituzten, gainera.

■ Ba al da andramaxetatik kenduko zenukeen zerbait?

Kendu, ez nuke ezer ere kenduko. Nire ustez, *playback*-ak, marmitako lehiaketak eta horrelako ekitaldiak ondo daude, bizitasuna ematen baitiete jaietara.

EGITARUA

GAUR

09:00: Pregoia, kalez kale. Eguneko jai egitaraua jakinaraziko dute.

10:00: Meza, Antiguako elizan. Andre Mariaren omenez.

10:30: Txistularien kalejira, kalez kale. Herriko Txistulari taldea.

13:00: Ohorezko aureskua egingo da, Alamedan.

13:00: Kale animazioa. Herriko txistulari taldea ibiliko da herriko kaleetan giroa jartzen.

17:00: Esku pilotako partidak jokatu dira, frontoian.

19:00: 33. Dantza Lehiaketa, Itsas Aurre plazan.

19:30: Kale animazioa, kalez kale. Erraldoi eta buruhandiak.

20:00: Kale animazioa, kalez kale. Trikitilari eta albokariekin.

23:00: Su festa, Ondarroako badian. Astondoa su etxeak egingo du gaurko emanaldia.

23:30: *Ai Martin* ikuskizuna, Itsas Aurre plazan. Iraulio Panttalone Band. Musika eta bertsoak.

01:00: Berbena, Itsas Aurre plazan. Irailerako 6 taldea.

Zubi Zahar
HERRI IKASTOLA
ONDARROA

"Zeuk, zure zerbitzura egiten duzun Ikastola"

Ibai ondo kalea, 15
Tel.: 94 683 14 16

NABERAN SAREAK, S.L.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu !!

BULEGOA/LANTEGIA
Mutrikuko Industrialdea, 15. zb.
61 P.k. - 20830 MUTRIKU
Tel.: 34 (9)43 - 19 51 22
Faxa: 34 (9)43 - 19 51 25

EVOLB
MOTOR SALMENTA
ETA KONPONKETA

Antiguako Ama, 11 - behea
48700 ONDARROA (Bizkaia)
Tel./Faxa: 946 830 219
e-mail: m_eyole@grupobv.net

OPIL - OKINDEGIA
GOZOTEGIA

ZUBEROA

OGI BEREZIAK: ZENTENO, FIBRAK, SOJA, PLUSMINUS, ...
GOZO BEREZIAK: TRUFA, SELVA NEGRA, SANTONORE, ...

Iñaki Deuna kalea, z/g ☎ 94 683 30 60
Artabide, 24 ☎ 94 683 19 14 ONDARROA-Bizkaia